




OÑATI
dabilen herria



ALKATE DEKRETUA

Nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengoa agintzea erabaki dut:

Udaleko Eraikinen mantenuko ofizial (C2) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko deialdia (2026ALK00003)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

Espediente zk.:..... 2026ALK00003

Espedientearen helbidea:.. OÑATI.

Gaia:..... Eraikinen mantenuko ofizial (C2) lanpostua LANBIDE bitartez aldi baterako betetzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak:

Oñatiko Udaleko 2026ko otsailaren 11ko Alkate-dekretu bitartez (245 zkia.) udal eraikinen mantenuko ofizialaren lanpostua aldi baterako betetzeko oinarriak argitaratu ziren LANBIDEn, 2026ABEE0033 espedienteari lotutako izapide modura. Oñatiko Udaleko 2026ko otsailaren 17ko Alkate Probidentziak, 2026ALK00003 espedientearen tramiteei lotuta oraingoan, eraikinen mantenuko ofizialaren lanpostua aldi baterako betetzeko oinarriok berretsi zituen.


Izen-emate epea amaituta, behin-behineko onartu eta baztertuen eta merezimenduen zerrendak argitaratu behar dira.

**DEIALDIA: ERAIKINEN MANTENURAKO OFIZIALA (2026ALK00003)
Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Onartuen zerrenda:

<i>Izen-abizenak Nombres y apellidos</i>
AITOR ECHEVERRIA ARRUIZ
ANDER RUIZ DE ARCAUTE CESTAU
ENDIKA IGARZA OLABARRRI
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN

Baztertutakorik ez dago.



OÑATI
dabilen herria

DEIALDIA: ERAIKINEN MANTENURAKO OFIZIALA (2026ALK00003)
Merezimenduen behin-behineko zerrenda

Behin-behineko merezimenduen balorazioa, hurrengoa da:

	Ikastaroak eta titulazioa (gehienez 10 puntu)	Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu)	GUZTIRA
ENDIKA IGARZA OLABARRRI	1	0	1
ANDER RUIZ DE ARCAUTE CESTAU	0	0,1	0,1
AITOR ECHEVERRIA ARRUIZ	0	0	0
JOSE MARIA ALBISU BARANDIARAN	0	0	0

Proposamena: udal eraikinen mantenurako ofizialaren lanpostua aldi baterako betetzeko behin-behineko onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea eta 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Horregatik guztiagatik, teknikariaren balorazioa eta proposamena ikusirik, nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizen honek, erabaki dut:

1. Eraikinen mantenuko ofizial (C2) lanpostua Lanbide bitartez aldi baterako betetzeko BEHIN-BEHINEKO onartu eta baztertuen zerrenda eta merezimenduak onartzea
2. 3 egun balioduneko epea ematea erreklamazioak jartzeko erabaki hau Oñatiko Udaleko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.
3. Erabakia Oñatiko Udalaren webgunean argitaratzea.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2026ko otsailaren 20an

Alkatea

OÑATIKO UDALA
Izaro Elorza Arregui

